

ABIZENAK

Aginagalde: “Agina” landara bat da, erderaz “tejo”. “-aga” mugatzaille sendotua eta “-alde”, urrean dagoana. Agiñetik urrean dagon etxea, litzake dana.

Errexil’en sortua da eta Aramaio’n agertzen da 1769n. urtean.

Agiriano: Agiña deritxen landarak dagozan lekua.

Eskoriatza’n eta Gatzaga’n agertu zan, baiña lenengoz idatzita Eskoriatza’n bertan 1506n. urtean.

Agirre: Avisen au bat izan leiteke bese batzukaz: Age-re, Agarre... eta olako izena daukan esteren bat erririk geienetan dago, Euskalerri osoan: Guipuzkoa-n 45 etxe. Oñate’n 5.

Agirian dagoan etxea esan nai ei dau. Lopez Mendizabal’ek barrutia dala diño.

Elorrio’n agertzen da, 1575n. urtean.

Aguirrebengoa: Aguirre izena daroan etheen artean berengoa esan nai dau.

Legazpia’n agertzen da 1731n. urtean.

Agirretxe (-txo edo -txu): Agirre’reñ etxea edo etxe txikia.

Bilbao’n agertzen da 1621n. urtean.

Aibar: Naparroan dago izen ori daroan erria.

“Ai-” bedar-lekua ei da, aldapa be izen leiteke. -bar atzikia da.

Naparroan 698n. urtean Rekaredo bisigodoaren aurka-ko gudan agertzen da avisen au eta ordutik sarritan Naparroa’n.

Aizarna: Aiz aritz’etik teoría da eta -na atzikia ugaritasunaren ezaugarri da. Orduña, Aizarna arizti aundia da.

Aizarnaeta agertzen da 1212n. urtean Nabas de Tolosa’ko gudaldian.

Azpilikueta: Aitz izan leiteke aitz naiz arritza. Tolosa’n agertzen da 1609n. urtean eta Javier santuak daroan

bere abizenen artean, baita “Doctor Nabarrus” ospetsuak be. Naparroan ugari agiri da.

Alaba: Ala- bedar lekua da eta -ba ugaritasuna. Izena Leon’en 886n. urtean.

Gamarra’n agertu zan eta ortik Aiala’ra ta Naparroa’ra igaro.

1561n. urtean Iruña’n daukagu.

Alaiza: ALAI bedar lekua da eta -tza atzikia, ugaritasuna. Bedarra ugari dauan barrutia dogu ba.

Araba;n agertu zan XI gizaldian.

Alaña: Ala- bedar lekua da eta -na ugaritasuna.

Aiala’ko Menagarai’n agertu zan, gero inguruetan eta Bilbao’n.

Albero: Alber -bedar sikua da eta -o ugaritasuna. Mitxelena’k “arri” eta “berro” alkartzen dauz eta aria dagon ezo-lekua dala diño.

Ataun’en agertzen da 1329n. urtean.

Alboniga: Alb- bedar legortua da eta ni- ta -ga toki - atzikia.

Alkorta: Ala- bedar legortua da eta -korta abereak atsedentzen diran lekua, erderazko sel, ortik datoz Kortazar eta abar. Orduña bedarlekuan dagoan atsedent -lekua.

Azkoitian agertzen da 1550’an.

Aldaba: Aldape’reñ aldakuntza da eta aldapa batean barrenean esan gura dau.

1554n. urtean Naparroan agertzen da. Aldabe Nabas de Tolosa’n 1212n. urtean.

Aldama: Alda- mendiaren aldapa da eta -ma toki - atzikia.

Aiala -inguruan agertua da ete lenengoz Balladolid’en 1520’an.

OLAZAR’tar Martin